

SOZILINGUISTIKAREN INGURUAN

>>>

6

“HIZKUNTZA-BEHARRAREN KONTZEPTUA, BEHARREAN DAUDEN HIZKUNTZETARAKO”¹

Alain Viaut

*Ikerketa Zientifikoko Zentro Nazionalea (CNRS)
Bordele 3ko Unibertsitatea*

Beharrak beharrezkotzat jotako zerbaiten gabezia adierazten badu, hizkuntza-beharra hizkuntza batek beharrezkotzat jotako hori dela esan dezakegu. Beharrezkoa zertarako? Komunikatzeko, trukatzeko, hizkuntza ideiak berekin dakarren berezko funtzioa betetzeko, eta baita giza hizkuntzatik harago doan komunikazio-funtzioa betetzeko ere. Edo, halaber, hizkuntza-beharrak gabezia baten sentimendua adieraz dezake, gabezi hori ohiko komunikazio-funtzioen bitartez adierazi ezin denean. Izan ere, hizkuntza jakin honen edo haren erabilerarekin lotutako zenbait funtzio periferikoekin nahas daiteke gabezia-sentimendua. Funtzio horiek sinbolikoak izan daitezke, edo kulturalak —geroago ikusiko dugu hori—, eta, hala ere, eskaera jakin batzuen objektu izan daitezke, beraz gizarte-eduki nabarmena duten eskaerena. Hizkuntza gizarte baten gizarte- eta politika-elkarreraginen sinboloetako bat da, baita lehentasunez hori erabiltzen ez bada edo haren komunikazio-ahalmenaren bidez hauteman ez bada ere.

Azken urteotan, hizkuntza-gabeziaren kontzeptua eztabaidagai bihurtu da Frantzian. Eztabaida horretan, bi adituk kontrako iritziak adierazi dituzte. Lehenik, Louis-Jean Calvet, *L'Europe et ses langues* (Calvet 1993: 194-199) obraren bidez, liberalizat jo daitekeen jarreraren alde

egiten hasi zen. Hor, hizkuntza, beste edozeren gainetik, erabilgarritasunak justifikaturiko tresna da. Ikuspegi hori jorratu du Abram de Swaan (2001a) Herbeheretako hizkuntzalariak ere. Hain zuzen, azken horren “hizkuntzen konstelazioan” (Swaan 1993, 2001b) oinarritzen da Louis-Jean Calvetek garaturiko “grabitazio”-eredua (cf. infra). Henri Boyer-ek, zenbait ekarpenen bitartez (Boyer 2002, 2006, 2007), bestelako ikuspegia garatu du, aurreko ikuspegiarekiko kritikoa. Berehalako komunikazio-eraginkortasunetik harago, hizkuntza-interbentzionismoa aztertu du, hizkuntzaren eta hiztunen arteko loturaren konplexutasuna osatzen duten hizkuntza-ukipenen kudeaketaren datu objektibotzat hartuta.

Hizkuntza-beharra soilik ekonomikoa edo komunikazio-behar berehalako baten adierazle ez dela onartuz, L. - J. Calvetek hizkuntzen identitate-funtzioa txertatzen du bere ikuspegian; baina gero funtzio hori gizarte-funtzio nagusiekiko² gutxiesten du. Identitate-funtzio hori, gizarte-eskaeren eragilea dena eremu urriko hizkuntzen kasuan —eskualde-hizkuntzak esaten zaie Frantzia hizkuntza horiei—, nahiz eta berez ukatua izan ez, alferrikakotzat hartzen da hizkuntza-komunikazioko oinarritzeko nahiak, eta beraz hizkuntzen bizitza, asetzeko. “Guretzat hizkuntza ez da jada objektu sakratu bat, arriskuan dagoen monumentu bat, gizakiarekiko kanpo-tresna bat. Esan dezagun berriro, hizkuntzak gizakien zerbitzurako sortu dira, eta ez alderantziz”, dio Calvetek, Lía Varelarekin batera sinaturiko artikuluan (Calvet & Varela 2000: 63). 1998. urteaz geroztik Europako Kontseiluaren Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutunaren egiten ari den aplikazioa dela-eta, iritzi horrek hemendik aurrera garrantzia izango duen errealitate bat plazaratzen du. Gaur egun, nazioarteko hitzarmen hori erakunde horretako 47 herrialde kideetako 23tan³ aplikatzen ari dira. Testu horren helburua, ordea, ez da hiztunak eskubidez babestea, are gutxiago hiztun-taldeak edo -komunitateak —nahiz eta Frantziako Konstituzio Kontseilua horren beldur agertu zen, 1999an⁴ testu hori berrestearen aurka egin zuenean—, baizik eta hizkuntzak⁵. Kasu honetan, L. - J. Calvetek gaiari buruz duen iritziak argudio argi bezain onartuen bidez egiten dio kontra duela zenbait hamarkadatik garaturiko joerari; hau da, nazioarteko politikako eta zuzenbideko arrazoiak direla-eta hizkuntzak hiztunen aurretik jartzea eragin duen joerari. L. - J. Calveten esanetan, hizkuntzak desagertzeko zorian dauden espezieak balira bezala babesteko joera badago, politiko-linguistikoki zuzena deritzon diskurtso baten bitartez (Calvet 2000). Haren diskurtsoa kritikoa da, hizkuntza-berdintasuna onartuz berdintasunari buruzko diskurtso guztiak bezala, baina baita dauden aukeren arteko berdintasunaren inguruan ere, hau da, ekologiarren babesaren ikuspegitik fokakumeak ehizatzea benetan debekatu badaiteke ere, ezin da, noski, L. - J. Calvetek dioen bezala, “jendeari hizkuntzaz aldatzea debekatu” (Calvet 2000: 55).

Demagun jende-kolektibo baten eskura jarri direla haien lehen hizkuntzari edo horren parekoari buruzko informazio minimo bat nahiz hiz-

Azken urteotan, hizkuntza-gabeziaren kontzeptua eztabaidagai bihurtu da Frantzia. Eztabaida horretan, bi adituk kontrako iritziak adierazi dituzte. Lehenik, Louis-Jean Calvet, L'Europe et ses langues.

Henri Boyer-ek, bestelako ikuspegia garatu du, aurreko ikuspegiarekiko kritikoa.

L. - J. Calveten esanetan, hizkuntzak desagertzeko zorian dauden espezieak balira bezala babesteko joera badago, politiko-linguistikoki zuzena deritzon diskurtso baten bitartez (Calvet 2000). Haren diskurtsoa kritikoa da, hizkuntza-berdintasuna onartuz berdintasunari buruzko diskurtso guztiak bezala, baina baita dauden aukeren arteko berdintasunaren inguruan ere, hau da, ekologiaren babesaren ikuspegitik fokakumeak ehizatzea benetan debekatu badaiteke ere, ezin da, noski, L. - J. Calvetek dioen bezala, "jendeari hizkuntzaz aldatzea debekatu" (Calvet 2000: 55).

kuntza horren erabilera publikorako gutxieneko aukerak, hizkuntza horrek gizarte-presentzia eta oinarrizko ospea izango duela bermatuz; hortik aurrera, hiztunek edo hiztun izan daitezkeen ziurtasun handiagoz eta jakinaren gainean bideratu ahal izango dituzte beren aukerak; orduan, hizkuntzak sinbolotzat edota kultura-erreferentziazat hartu beharko lirarteke, komunikazio-hizkuntzatzat baino gehiago. Gero -horrela ohartarazi zuten Kataluniako hizkuntza-politikarekiko eragile kritiko batzuek (Bañeres & Romaní 1994: 40-41)-, eremu urriko hizkuntzaren alde aukeratzean, baliteke hiztunek eremu urriko hizkuntza horiek dituzten gizarteen joera orokorrak jarraitzea, hizkuntza-ukipeneko hasierako egoera asimetrikoa delako beste hizkuntzarekiko edo hizkuntzekiko. Beraz, horren ondorioz, emulaziozko edo lehiazko espiritu-egoerak sor daitezke (ibidem). Azken hori "diglosia itzultzearen"⁶ aldeko jarrera identitario baten ordezkari izango litzateke, interes nagusiek onarturiko hizkuntza-beharra ezinbestean adierazi gabe. Azken hamarkadetan identitate kontzeptua hain erabilia izan da hainbesteren ahotan eta hainbestetan, non gerta daitekeen kontzeptuaren arrastorik ez geratzea, baldin eta batzuek eta besteek kontzeptuaren aztarnak berreskuratuz eta kontzeptua berriro eraikitzen ez badute. Berreraikitze horien artean, garrantzi handia du hizkuntza berezko kultura-ezaugarriak —bizituak edota bizi-tzat irudikatuak— dituen autokontzientzia kolektibo baten adierazletzat hartzen duen kontzeptuak. Hizkuntza fundatzaile bihurtu daiteke, sarritan oso desberdinenak diren konfigurazio eta emaitzen arabera. Horrela da, adibidez, flandestarentzat Belgikan, edo okzitanieraren irudi geolinguitiko eta soziokulturalaren lurralde-proiektiotik eratorriko Okzitania kontzeptuaren kasuan, bai eta, desberdinak diren arren, asturierarentzat eta bosnierarentzat.

"GRABITAZIO"-EREDUA

Identitate-funtzioak, soilik, ez du benetan aukera handirik komunikazio-funtzioan gutxi asetzen diren —edo batere ez— nahiak konpentsatzeko. Hizkuntzak komunikaziorako gizarte-erabilgarritasuna edo -instrumentaltasuna izan behar du, eta hemen hizkuntza, gure ustez, orokorrean hartu beharko litzateke, hizkuntza jakin batek oraindik erabiltzen duen edo erabil dezakeen taldearentzat izan dezakeen erreferentzia-funtzioaren bitartez. L. - J. Calvetek hizkuntzaren gizarte-funtzio horri buruz mahaigaineraturiko galdera funtsezkoa da, baina, gure ustez, galdera horren erantzun bakarrak ez luke izan behar esatea funtzio hori betetzeko ahalmena galdu duen hizkuntza jada ez dela baliagarria, eta ez dela harriztekoa hizkuntza horren hiztunak hizkuntza horretatik aldentzea. Hiztunen portaera hori, noski, emaitza objektiboan arabera azter daiteke, baina baita portaera horren jatorriaren arabera ere, arrazoiak hobeto eza-gutzeko; izan ere, hizkuntza batek funtzio guztiak galtzen dituenean,

identitate-funtzioa ager daiteke gizarte-funtzioak betetzeko helburuarekin, baita egoera hori behartua bada ere.

Eztabaidaren xehetasunetan sartu gabe —jarreretako batek alde bat oso-oso polita eta sentimendu on irrealistakoa dela adierazten duten diskurtsoen kontrakoa da (cf. supra, politiko-linguistikoki zuzena), eta besteak, berriz, eremu urriko hizkuntzen edo hiztun gutxiko hizkuntzen babesa eta sustapena justifikatzea du helburu (Boyer 2006: “Conclusions”)—, lehen jarreraren baitan garaturiko argudio nagusietako baten oinarria hizkuntzen ekologiaren ikuspegi orokorra da, haren egileak, L. - J. Calvetek (1999: 76-81 ; 2002: 25-26), “grabitazio-” eredua deiturikoa. Eredu horren eskeman, hizkuntzak sistema global batean integratzen dira, zirkulu zentrokideetan antolatuta. Hizkuntza “hiperzentral” baten inguruan (ingelesa), hamar bat hizkuntza “superzentral” daude (esaterako, arabiera, gaztelania eta frantsesa), 100-200 hizkuntza zentral (estatu-hizkuntza ofizialak) eta 5.000-6.000 hizkuntza periferikoak. Azken horietako asko oso komunikazio-eremu urriko hizkuntzak dira, edo desagertzeko arriskuan daude. Ereduaren egilearen arabera, hizkuntza “hiperzentral” horri gero eta garrantzi handiagoa emateak zenbait hizkuntza zentralen eta periferikoren (eremu urrikoak, eskualdekoak...) garrantzia areagotu dezake, hizkuntza “superzentral” eta zentral garrantzitsu batzuen kalterako. Hizkuntza horiek, jakina, ekoizte-kapital handia eskaintzen dute hiztunentzat edo hiztun izan daitezkeenentzat, komunikazio- eta jakintza-ahalmenen aldetik. Horrez gain, hizkuntza-aniztasuna dela-eta, kapital hori garrantzitsua da gizateriaren ondarearen ikuspegitik ere, hizkuntza bakoitza modu bat baita errealitatea ezagutzeko eta bereganatzeko, eta hizkuntzak gizakiak errealitatearekin dituen harreman-moten lekuko baitira.

Oro har, hizkuntza guztiek dute ondare-eskaintzako ahalmen hori, eta guztiei dagokie. Hori jada adierazi da, bai hizkuntza “handien” kasuan —frantsesa, ondare nazional gisa—, bai hizkuntza “txikien” kasuan ere —horiei buruzkoa da Eskualdeetako eta Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna⁷—. Ahalmen hori ez litzateke murriztu behar, analogia murriztaile baten bitartez, hizkuntzak arriskuan dauden monumentuekin parekatuko lituzkeen ondare kontzeptuaren adiera batera. Bi kasuetan, hizkuntza biziak eta dinamikoak dira, edo ahalmen hori egozten zaie —ahalmen irudikatua—, bidez edo bidegabe, “babesteko eta sustatzeko” neurrien bitartez (Hizkuntzen Europako gutuna, 5. kontuan hartuzkoa). Babes hori bermatu behar al da? Sustapenaren bidez osatu? Hori egiteko behar den inbertsioa ez al da gehiegizkoa edo desegokia, beste hizkuntza-lehentasun batzuk kontuan hartuta —esaterako, hizkuntza “superzentral” eta zentralen lehentasuna ematekoa, hizkuntza horiek lortuak baitituzte ekoizpen-gaitasun operatiboak—? Horren aurrean, estandarizazio-prozesuak, hizkuntzaren gizarte-funtzioak erabiltzeko baliagarriak direnak nahiz hizkuntza-beharrak adieraztea erraztekoak

Hizkuntzak

komunikaziorako gizarterabilgarritasuna edo -instrumentaltasuna izan behar du, eta hemen hizkuntza, gure ustez, orokorrean hartu beharko litzateke, hizkuntza jakin batek oraindik erabiltzen duen edo erabil dezakeen taldearentzat izan dezakeen erreferentzia-funtzioaren bitartez.

Hizkuntza batek funtzio guztiak galtzen dituenean, identitate-funtzioa ager daiteke gizarte-funtzioak betetzeko helburuarekin, baita egoera hori behartua bada ere.

direnak, ibaian gora edo ibaian behera daude: ibaian gora, prozedura teleologikoetatik sortutako prozesuak badira, eta ibaian behera, hizkuntza-eskaeraren kausazko errealtatetik sortuak badira. Funtsean, Jean A. Laponce-k Frantziako eskualde-hizkuntzen joerei buruzko gogoeta egitean diona da; hain zuzen, “gizartearen, ekonomiaren eta politikaren alde-tik atzerriko hizkuntza garrantzitsu diren hizkuntzek dute erabilgarri izateko aukera handiena; hau da, katalanak, nederlandarak, eta batez ere alemanak” (Laponce 2006: 60).

Frantziako adibideak hau erakusten digu: eskualde-hizkuntza horiek Hexagonoaren mugetatik at jarraipena eta aldaera estandarrik izatea erabakigarria izan daitekeela haien biziraupenerako eta etorkizunerako. Baina, Frantzian, mugaz haraindiko hizkuntzekin baino ez da gertatzen hori; hau da, ondoko herrialdeetan Estatuko hizkuntza ofizial direnekin —esaterako, alemana eta nederlandera— eta mugaren bi aldeetan eremu urriko hizkuntza edo hizkuntza minoritario direnekin —esaterako, euskara eta katalana—. Azken bi hizkuntza horiek, autonomia-estatutuak direla-eta, koofizialak dira gaztelaniarekin batera, mugako alde bateko lurralde batzuetan, baina, hala ere, aldaera arautuen bidez kodetu eta hedatzen dira, eta, hein handi batean, oso estandarizatuta daude gaur egun. Estandarraren leku hori hizkuntza-beharraren adierazpenarekin lotu behar da. Hizkuntza-beharrak are nabarmenago adieraziko da, baldin eta aldaera estandar eskuragarri eta eraginkorra badago —edo erabiltzeko minimo bat—. Hori da eremu urriko hizkuntzaren eta hizkuntza-beharraren arteko loturari heltzeko giltzarrietako bat: hizkuntza-adierazpen horietarako aldaera estandarria izatea edo ez. Baina estandarizazioa lortzea zaila da, eremu urriko hizkuntza horiek, lehenik, aldaera dialektaletan hitz egiten duten taldeen komunikazio hizkuntzak badira, edota kausazko estandarizazio baten eraginaz nola-hala baliatzen badiara.

Batetik, ikuspegi hori diglosia zoriontsuak egotea justifikatzen duen kontzeptu-markoan sar daiteke; diglosia horietan, hizkuntza-erabileren banaketa funtzionala eta hierarkizatua berez eta besterik gabe onartu eta ontzat emango lukete erabiltzaileek. Hemen Suitza alemaneko diglosia aipa daiteke, aleman estandarren (Schriftdeutsch) eta alemanaren aldaera diatopikoen artekoa. Diglosia hori ikuspegi mikrosoziolinguistikoko baten markoan deskribatzen dute Suitzako soziolinguistek: are errazago hautematen da elkarrizketa-trukeetan eta gizarte-eragileen arteko trukeetan, alemanaren aldaera jasoaren eta aldaera arrunten arteko erlazio hierarkizatu gisa baino.

Bestetik, diglosiak ez dira beti zoriontsuak. Ezegonkorak eta gatazkatsuak izan daitezke, edo post-diglosia bihurtzeko zorian egon —post-diglosia horietan, gainera, baliteke hizkuntza-ordezkapena izatea prozesuaren azken emaitza, batzuetan gaizki onartua edo ez hautatua⁸—. Hizkuntzak, halaber, modu askotan desager daitezke; besteak beste, hitzunek jakinaren gainean utz diezaiokete hizkuntza erabiltzeari. Bistakoa da horrela bazter-

tzea gutxitan izaten dela gogozkoa; hein batean, merkataritza-negoiazio batean edo burtsa-eragiketa batean ordaindu beharreko prezioaren parekoa izan daiteke, merkatuaren egoera gardena ez denean edo erabakiak oso azkar hartu behar direnean, nahiz eta hartutako erabakiez berehala damutu. Hizkuntza alde batera uztearen atzean ere, hizkuntza-merkatuaren joerak eragindako aukeraketak egon daitezke; hain zuzen, komunikazio-gaitasuna eta botere-erlazioak uztartzen dituzten joerak. Baina ondo komunikatu behar da, kode eraginkorrak eta errentagarriak erabiliz, komunikatzea gizartean lan egitea, bizitzea eta elkartrukatzea delako.

ZIRKULU FUNTZIONALA


Merezi du L. - J. Calvetek, irakurketa kritiko baten bitartez (Calvet 1993: 177-186), oinarritzat hartutako Aracil-en ikuspegia aztertzea, zenbait puntu argitzeko. Lluís V. Aracilek "zirkulu funtzionala" esaten dio zibernetikan oinarrituriko eredu bati ematen dion aplikazioari. Eskemak, hasieran, kontuan hartzen ditu hizkuntza-ukipeneko diglosia-egoerak edo egoera gatazkatsuak —esaterako, katalanak bizitakoak, batez ere XVIII. mendeaz geroztik—, eta, beraz, bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza baino gehiagoren arteko harremanen dinamikak deskribatzeko helburua du. Komeni da zehaztea L. V. Aracilek "oinarritzko eredu zibernetiko baten zirriborro"⁹ gisa aurkeztu zuela zirkulu funtzionala. Zirkuluaren funtsezko osagaiak hauek dira: gizarteko hizkuntza-funtzioak, hizkuntzaren gizarte-funtzioak, eta atzeraelikadura (feedback) positiboa edo negatiboa. Erdian, gizartearen hizkuntza-funtzioen eta hizkuntzaren gizarte-funtzioen artean, hizkuntza-sistemaren kaxa beltza dago; kaxa horretan, aurretiaz, hizkuntza-politikari eta -plangintzari dagozkien kontzeptuak eta ekintzak kokatzen dira:

"Batetik, hizkuntzaren "gizarte-funtzio" famatuak izango ditugu (= hizkuntza sistemaren outputa); eta, bestetik, gizartearen hizkuntza-funtzioak, itxuraz ilunak direnak, edo hizkuntzari dagozkion gizarte-egiturak eta -prozesuak (=hizkuntza sistemaren inputa). Gainera, hizkuntza-funtzioetan, funtsezko bi mota bereizi beharko dira: hizkuntza-kontzientzia (= language consciousness) eta hizkuntza-kontrola (= language control). Diagrama hori ikusita, berehala hautematen dugu feedbacka bi noranzkoa izan daitekeela. Autozuzenketa (= negative feedback) gertatuko da, funtzio-ordena bateko defizit batek konpentsazio-ahalegina eragiten badu beste funtzio-ordenan. Eta, aldiz, aplikazioa (= positive feedback) gertatuko da, hasierako defizitak elkarrekiko funtzio-defizita eragiten badu, hasierako defizita areagotuko duena, eta horrela etengabe. Lehenengo hipotesian, stressa ("gatazka" deritzot) gainditu egingo da, eta azkenean ezabatuko, hizkuntza-sistema horretan eginiko egokitze-aldaketan bitartez. Normalizazioa da erreakzio ideal "normal" horren adibiderik tipikoena (cf. infra). Bigarren kasuan, aldiz, prozesua askoz konplexuagoa, gogorragoa eta zailagoa izango da, ez baita lortuko gatazka desagerraraztea, baldin eta hizkuntza-sistema ezabatzen ez bada; beraz, hizkuntza-aldaketa egongo da —hau da; ordezkapena—. (Aracil [1965] 1982: 26-27)¹⁰.

Hona hemen Aracilen proposamenaren adierazpena, diagrama baten bitartez:

Eredu horren eskeman, hizkuntzak sistema global batean integratzen dira, zirkulu zentrokideetan antolatuta. Hizkuntza "hiperzentral" baten inguruan (ingelesez), hamar bat hizkuntza "superzentral" daude (esaterako, arabiera, gaztelania eta frantsesa), 100-200 hizkuntza zentral (estatu-hizkuntza ofizialak) eta 5.000-6.000 hizkuntza periferikoak.

L.V. Aracilen "zirkulu funtzionala" adierazteko saiakera



Eredu horren deskribapen-eredua sorrarazi duten eskemekin konparatuz gero —adibidez, David Eaton-ek (1965) politika-sistemarako garaturikoa—, hiztunen gizartearen eta hizkuntza-sistemaren arteko input gisa dabilzan eskarien mailan agertzen dira gizartearen hizkuntza-funtzioak. Bestalde, hizkuntzaren gizarte-funtzioak output gisa ageri dira, eskaintzaren mailan, hizkuntza-sistemaren eta hiztunen gizarte-ingurunearen artean; hizkuntzaren gizarte-funtzioak, hain zuzen, hizkuntza-sisteman erabiltzen dira eta bertan eragiten dute. Hizkuntzaren gizarte-funtzioak berregokitzeko hizkuntza-sistemak gizarteko hizkuntza-funtzioak berrantolatzeak feedback negatiboko dinamika sortzeko aukera ematea dakar berekin, eta feedback horren eragina hizkuntza-eskariaren edukia zuzentzea ekar dezake. Eredu horren arabera, gizarte jakin horrek ikusiko du erakundeek edo hizkuntza-sistemako arduradunek eskaintza egiten diola, hizkuntza berreskuratzeko prozesu bat sustatzeko itxurazko ospe-adierazpenen eta leialtasun aktiboko jarreraren bitartez. Horrenbestez, ereduak egoera eta prozesu errealeak deskribatzen ditu, hizkuntza-plangintzako prozedurak aztertzeko; esaterako, Amerikan frantsesaren alde egiteko nahiz European eskualde-hizkuntzen eta eremu urriko hizkuntzen alde egiteko.

Gizarte-ingurune baten eta hizkuntzaren gizarte-funtzioak eskaintzean hizkuntza bat bestearen gainetik sustatzen duen hizkuntza-sistema baten artean sinbiosi bilakaera badago, beti dago galdetzerik zein den joera hori izateko arrazoia; bai gizarte-ingurunean eta haren bilakaera ez-arautuan, edo gizartearen ildoetan, politika-, ideologia- eta ekonomia-aldaketak eragin ditzaketen pertsona horien zuzenbidezko edo egiteko

hautaketetan. Hala ere, hemen konstatazio gisa balio duenak ez du azalpen eta justifikazio baliorik. Auzi horri heltzeak soziolinguistika deskribatzailearen eta soziolinguistika inplikatuaren arteko eztabaidara darama. Ikuspegi horretatik, deskribapenak hizkuntza-beharraren datu objektiboak integratu behar ditu, bai eta hizkuntza-behar hori zerk sortzen duen edo desagerrarazten duen integratu ere. Maila horretan irakurri behar da L. - J. Calvetek proposatutako ikuspegia, ikuspegi horren iturrietara joz; hau da, L. V. Aracilek ([1965] 1982: 26-27) egokituriko eredu zibernetikora joz. L. - J. Calvetek “eskari artifiziala” (cf. supra: Calvet 1999: 223) deritzon horretan oinarrituriko identitate motibazio berriak hizkuntzaren gizarte-funtzioaren gai funtsezkoa planteatuko luke, bai eta, inplizituki, gizarte-funtzio horren edukiarena ere; “hizkuntzaren gizarte-funtzio gabezia konpentsatzeko gizartearen hizkuntza-beharrak aldatzeko ahaleginaz” mintzo da, eta horrek hizkuntza/gizartea dikotomia “homeostatikoaren” gaineko interbentzioaren gaia plazaratzen du (Calvet 1999: 223).

HIZKUNTZA-BEHARRA ETA HIZKUNTZA-SISTEMA

L. - J. Calvetek, bere aldetik, “hizkuntzen ahalmen funtzionalak” eskaintzat (outputak) hartzen ditu, eta gizarte-beharrak, berriz, eskaritzat (inputa): “hizkuntzen etorkizuna, hein batean, gizarte-beharraren (eskaria) eta dauden hizkuntzen ahalmen funtzionalen (eskaintza) araberako izango da” (Calvet 202: 109). Hori horrela izanda, badirudi (hizkuntzarako) gizarte-beharrak bat datorrela hizkuntza-beharrarekin. Azken hori, eskariaren edo inputen mailan kokatuko litzateke zirkulu funtzionalean, eta, ondorioz, gizarteko hizkuntza-funtzioen mailan. Horri dagokionez, L. - J. Calveten iritziz, Frantziako eskualde-hizkuntzak, hizkuntza-sistemaren ibaian behean, “eskaririk gabeko eskaintza osatzen dute” (Calvet 1993: 196). Baina baieztapen hori zehaztu beharraz gain, inkesta-emaitzak kritikagarriak eta urriak direla bistakoa izanik, hizkuntza-sistemak eskaintza horren alde egingo lukeela iradoki dezake horrek (Frantzian, eskualde-hizkuntzen irakaskuntzarekin lotutako neurrien bidez?). Egiaztapen horretatik harago, hizkuntza-kontzientzia edo autokontzientzia (hizkuntza-funtzioa > eskaria) L. V. Aracilek (cf. supra) aipaturiko hizkuntza-kontrolarekin batera doa. Hizkuntza-kontrolaren kontzeptu horrek kodetzearekin edo arautzearekin —eta beraz, estandarizazioarekin— lotutako kontzeptu operatiboak hartzen ditu, printzipiuoz hizkuntza-sistemako berezko jarduerekin zerikusia dutenak. Ikuspegi horren arabera, hizkuntza-sistemak, haren balizko boluntarismoaren baitan, kontuan hartzen du “hizkuntza-kontzientziako” (eskaria) gutxieneko dosi bat, edota hizkuntza-sistemak nagusi bakarria balitz modura jokatzen du, hizkuntza-merkatuko berehalako joerak kontuan izan gabe, bai eskariari uko eginez, bai eskaria egon gabe egon balitz bezala jokatuz.

*Diglosiak ez dira beti zoriontsuak.
Ezgonkorrak eta gatazkatsuak izan daitezke, edo post-diglosia bihurtzeko zorian egon —post-diglosia horietan, gainera, baliteke hizkuntza-ordezkapena izatea prozesuaren azken emaitza, batzuetan gaizki onartua edo ez hautatua.*

Hizkuntza alde batera uztearen atzean ere, hizkuntza-merkatuaren joerak eragindako aukeraketak egon daitezke; hain zuzen, komunikazio-gaitasuna eta botere-erlazioak uztartzen dituzten joerak.

Lluís V. Aracilek "zirkulu funtzionala" esaten dio zibernetikan oinarrituriko eredu bati ematen dion aplikazioari. Eskemak, hasieran, kontuan hartzen ditu hizkuntza-ukipeneko diglosia-egoerak edo egoera gatazkatsuak.

Eredu horren arabera, gizarte jakin horrek ikusiko du erakundeek edo hizkuntza-sistemako arduradunek eskaintza egiten diola, hizkuntza berreskuratzeko prozesu bat sustatzeko itxurazko ospe-adierazpenen eta leialtasun aktiboko jarrearen bitartez.

Lehen azaldutako diagramak mugak ditu, ezbairik gabe. Ereduak nolabaiteko egonkortasunez funtzionatuko lukeela pentsatzearen ideia artifiziala eta ametsezkoa dirudi, ideia horri hizkuntza-ukipenezko egoerak normalean orokorrak, gutxienez diglosikoak eta gehienetan bilakae-razkoak izaten direla gehitzen badiogu. L. V. Aracilen aurkezpenean — aurkezpen laburra, haren esanetan—, hizkuntza-sistema eduki- edo funtzionamendu-ezaugarririk gabe azaltzen da. Baina hizkuntza-sistemaren atzeraelikadurak eta joerek orekatzearen alde egin dezakete —borondatez ere bai—, bai hizkuntza-ukipeneko egoeran, bai elebakartasunekoan ere —elebakartasun hori eusten diona edo eragindakoa izan—, eta horretarako, alde guztietatik, politika- edo ideologia-aukeraketak behar dira, bai eta hizkuntza-plangintzako prozedura egokiak ere.

Funtzionamendu zibernetikoaren ideiak berak etengabeko ziklo baten irudia iradoki badezake ere, eredia mugikorra eta dinamikoa da berekin dakarrelako gizarte-inguruneak egokitu eta erreakzionatu beharra. Hori dela-eta, tentagarria da ereduaren alderdi deskribatzailetik eragiteko ahalmenera aldatzea; gainera, eztabaida egon daiteke, ea eredia bi erabilera horietara egokitzea onartu behar den ala ez, bigarren erabilerak lehenean ezinbestean eragin behar izan gabe. Eztabaida horretan, "azalpeneko" adjektiboa erabiltzen du L. V. Aracilek hasierako eskema kalifikatzeko. L. - J. Calvetek eginkizun hori onartzen dio ereduari. Baina, uste du, tamalez, eredia ez dela azalpenak egiteko sortu zentzu hertsian, nahiz eta eskema zibernetiko batean oinarrituta egon —eskema zibernetiko oso-oso oinarritzakoa, egilearen esanetan¹¹—, eta funtzionamendu zibernetikoa, eta hizkuntza-sistema homeostatiko eta autoerregulatuzailearen artekoa izan (Calvet 1993: 179-180).

Eredu-mota horrek, sistemikatik eratorria, berekin dakar homeostasia kontuan hartzea (hizkuntza-sistemaren oreka) aplikatzean hizkuntza bakar batekin funtzionatzeko dela, edo nagusitasun handiko egoeran dagoen hizkuntza batekin, edo ukipen-egoera nolabait orekatuan eta onartuan dauden hizkuntza batzuekin. Kasu horietan guztietan, feedback negatiboak multzoaren funtzionamendu zibernetikoa erregulatzeko balio du, ahalik ongien zuzentzen eta doitzen baititu outputak, inputetan eragiten dituzten sintometara. Feedback positiboa egonez gero, berriz, aldaketak egin beharko liriateke edo funtzionamendu-krisia sortuko litzateke. Eskariek (gizartearen hizkuntza-funtzioek), ekonomia-eta gizarte-eraginkortasunaren aldetik benetako beharren eramaile ez direla kenduta, input gisa jarduten dute, eta haien kudeaketa homeostasiaren doikuntzaren menpe dago. Azken horren moldagarritasunik ezak input horien masa handitzea eragin dezake, eta input horiek atean blokeatuta geldituko liriateke, gero diluitzeko, beste input batzuetara transferitzeko edo forzatzeko.

HIZKUNTZA-BEHARRAREN IZAERA ETA MOTIBAZIOAK

Hizkuntza-beharrak, agerikoa denean, justifikatzen ditu hizkuntzaren gizarte-funtzioak, baita horiei eustea eta sustatzea. Behar hori normala eta ohikoa izatean gizarte-funtzioen eskaintzan eragiten du. Eskaintza horrek, hizkuntza-ukipeneko egoera batean, gutxieneko lege-aitorpenean gauzatzen da, eta baita, L. V. Aracilek iradoki bezala, politika-autonomia nahiko zabal batean ere (Aracil 1984: 33). Baina gerta daiteke gutxienez hizkuntza-komunitateko alde batek adieraztea hizkuntza-beharra ez dela asetzen, nahiko bailuke baldintza hobeak izatea bere hizkuntza erabiltzeko, hizkuntza horrek komunikazio-funtzio erabilgarriak bete ditzan, eta ez soilik funtzio sinbolikoak eta identitatekoak. Fase horretan, "hizkuntza-nahia" kontzeptua ekar daiteke gogora: kultura-aitorpena izateko itxaropena edota hizkuntza-beharraren adierazpenaren aurreko etapa¹². Hala ere, Aracilen ereduari, maila horretan eragiten du hizkuntza-normalizazioaren kontzeptuak ere: batzuentzat, hizkuntza-sistemak gizartearen hizkuntza-funtzio berriei emandako erantzuna izango da hizkuntza-normalizazioa; L. - J. Calvetentzat (1993, 2000), berriz, ereduaren bilakaeraren adierazlea izango da, deskribapenetik edo azalpenetik inplikazio operatiborako, are militanterako, bilakaera¹³.

L. - J. Calvetek eginiko galdera honela labur daiteke: bidezkoa al da hizkuntzaren gizarte-funtzioak artifizialki sorraraztea, hizkuntza-beharrak ez badago? Arrazoiketaren fase horretan, L.V. Aracilen proposamenean, gure ustez, eskema zibernetiko bat deskribatu baino ez da egiten; eskema hori egonkorra baino gehiago dinamikoago eta ebolutiboago da, eta, berriro diogu, hizkuntza-ukipenezko testuinguruan abiatu eta gertatzen da. Zirkulu funtzionala helburu deskribatzaileko eredu teorikotzat ikusten ez bada, halaber, eredu "ideologiko-politiko" (Calvet 1993: 179) operatibotzat ikus daiteke, eta sistemaren autoerregulazioa, L. - J. Calveten ustez, ereduaren ikuspegi inplikatu batean kokatuko litzateke. Hori dela-eta, hizkuntza operatibo eta funtzionalei soilik dagokie hizkuntza-beharra adieraztea, bai rol horri eutsi nahi dioten hizkuntzei, bai beste ezeren aurretik rol hori lortu nahi dutenei. Funtzional izateari utzi dion hizkuntza beste hizkuntza batez ordezkaturiko da, eta hiztunek onartuko dute hizkuntza horren balio instrumentalarengatik. Atxikitze tazitua soilik instrumentaltasunari erreparatuz aztertuta ere —atxikitzea nahita edo behartuta izan; instrumentaltasuna, berriz, batzuetan halabeharrezkoa eta ezinbestekoa izango da, noski—, ez litzateke aztertu gabe utzi behar atxikitze hori gizartean zergatik eta nola gertatu den (Boyer 2007: 41). Alde horretatik, hizkuntza baten balio instrumentalaren izaera eta baliabideen, helburuen eta eraginkortasunaren izaera konplexuaren ezagutzan sakondu behar da hizkuntza-ukipenezko egoeretan, azken finean egoera horiek gehiengo baitira mundu osoan.

Halaber, testuinguru jakin batean dauden bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza baino gehiagoren arteko interes kontrajarrien etengabeko nego-

L. - J. Calvetek "eskari artifiziala" (cf. supra: Calvet 1999: 223) deritzon horretan oinarrituriko identitate motibazio berriak hizkuntzaren gizarte-funtzioaren gai funtsezkoa planteatuko luke, bai eta, inplizituki, gizarte-funtzio horren edukiarena ere ; "hizkuntzaren gizarte-funtzio gabezia konpentsatzeko gizartearen hizkuntza-beharrak aldatzeko ahaleginaz" mintzo da, eta horrek hizkuntza/gizartea dikotomia "homeostatikoaren" gaineko interbentzioaren gaia plazaratzen du (Calvet 1999: 223).

Funtzionamendu zibernetikoaren ideiak berak etengabeko ziklo baten irudia iradoki badezake ere, eredia mugikorra eta dinamikoa da berekin dakarrelako gizarte-inguruneak egokitu eta erreakzionatu beharra. Hori dela-eta, tentagarria da ereduaren alderdi deskribatzailetik eragiteko ahalmenera aldatzea; gainera, eztabaida egon daiteke, ea eredia bi erabilera horietara egokitzea onartu behar den ala ez, bigarren erabilerak lehenean ezinbestean eragin behar izan gabe.

ziazio bidezko oreka lortze aldera jarduten duen kudeaketa dagoela adieraz dezake zirkulu funtzionalak. Sistema desorekatu daiteke, eta mantentze-jarduerara mugatu, hizkuntza bakar bat erabiltzera, eta hizkuntza horrentzako eskaintza eta eskaria negoziatu beharrik gabe agertuko lirarteke. Orduan, atzeraelikadura hutsala da, eta ez dago berregokitze-behar handirik, baldin eta ondoko beste sistema batekiko ez bada; kasu horretan, sistema hura bestearen eragin-eremuan sartzen arituko litzateke. Hala ere, fase horretan, autoerregulazio zibernetikoan eskema deskribatzailea erabiltzeak ez luke zentzurik izango, baldin eta ez bada onartzen hizkuntza-adierazpenen arteko botere-harremanak hitzunek onartu behar dituztela, eta hitzun horiek beste hizkuntza erabilgarriago batzuen bila joango lirartekeela.

L. - J. Calvetek L.V. Aracilek (cf. supra) zirriborraturiko ereduaren harira Frantzia eginiko oharra erabilgarriak dira, zirkulu funtzionala izan baita Espainian garaturiko hizkuntza-plangintzako ikuspegi globalaren oinarria, tokian tokiko edo eskualdeko hizkuntzen alde egiten duena —katalana da, adibidez, hizkuntza horietako bat—. Hizkuntza horiek koofizialak dira, gaztelaniarekin batera, 1978ko Konstituzioaren 3. artikuluan xedatutakoari jarraiki, autonomia-estatutuen bitartez. Tokian tokiko hizkuntza koofizial edo hizkuntza babestu —esaterako, asturiera— horientzat erabilera “normaleko” baldintzak sortzeko hizkuntza-normalizazioko neurriak eredu horretatik eratorriak dira, nahiz eta beste ikuspegi eta jardunbide batzuek osatu eta aldatu den ereduaren hasierako zirriborria. Gainera, zirkulu funtzionalarekiko ikuspegi kritikoak azaldu dira Espainian¹⁴, bai eta hizkuntza-normalizazio kontzeptu berarekiko ere; hain zuzen, eztabaida sortu zen gai horri buruz 1990eko hamarkadaren amaieran¹⁵.

Hortik abiatuta, zirkulu funtzionalari eginiko kritika —helburu operatibo eta konprometuekin sortutako hizkuntza-beharrak biziberritzeko eredia dela— zehatz daiteke. Hemen, kontua ez da ereduaren defentsa arrazoitzea, baizik eta haren ezaugarriak identifikatzea. Halaber, onartuko dugu alderdi teorikoaz gain eredu deskribatzaile eta azalpenezkoa izan daitekeela, hizkuntza-ukipeneko edo hizkuntza-normalizazioko egoerarako, hizkuntzen dinamikaren ikuspegitik. Bestalde, operatiboa izan daiteke, are gehiago, inplikatu ere (horixe dio egileak), aplikazio-aukera desberdin horiek nahasi beharrik gabe. Hizkuntza-plangintzako gaiekin lotura estuago duten beste eredu batzuk atea irekita uzten dute alde biko irakurketa deskribatzaile edo azalpenezkoa eta operatiboa egiteko —soziolinguistikako literaturak ematen du horren fede (Labrie 1993: 29-32)—. ■

BIBLIOGRAFIA-ERREFERENTZIAK

- AYMÀ Josep M. (1992). Allò que no se sol dir de la normalització lingüística. Barcelona: Empúries.
- ARACIL Lluís V. (1982). Conflit linguistique et normalisation linguistique dans l'Europe moderne. Nancy: CEU, 1965, 10.-12. or. Katalanez, hemen: Papers de sociolingüística. Edizioa eta hitzaurrea: Enric Montaner. Barcelona: La Magrana.
- BAÑERES Jordi eta ROMANÍ, Joan-Maria (1994). "L'exhortation à la "normalisation" ou Ho volem tot en català (Nous voulons tout en catalan)". *Lengas revue de sociolinguistique*, 35. zk., 27.-44. or.
- BASTARDAS Albert (1991). Fer el futur. Sociolingüística, planificació i normalització del català. Barcelona: Empúries.
- BOYER Henri (2002). "La 'mort' des langues : une question (toujours) d'actualité". *Lengas revue de sociolinguistique*, 51. zk., 159.-168. or.
- BOYER Henri (2007). "Les langues minoritaires à l'encan ? De la "course à la 'part de marché' à l'acharnement thérapeutique": globalizazioaren alderdi linguistikoei buruzko diskurtsoa, hemen: Viaut, Alain (zuz.). *Variable territoriale et promotion des langues minoritaires*. Bordele: Maison des sciences de l'homme d'Aquitaine, 33.-45. or.
- BOYER Henri (2006). "Le nationalisme linguistique : une option interventionniste face aux conceptions libérales du marché des langues". *Noves SL*, udazkena-negua.
http://www6.gencat.net/llengcat/noves/hm06tardor-hivern/boyer1_3.htm
- BRANCHADELL Albert (1997). Liberalisme i normalització lingüística. Barcelona: Empúries.
- CALVET Louis-Jean & VARELA, Lía (2000). "XXIe siècle : le crépuscule des langues ? Critique du discours politico-linguistiquement correct". *Estudios de sociolingüística*, 1(2). zk., 47.-64. or.
- CALVET Louis-Jean (1993). *L'Europe et ses langues*. Paris: Plon.
- CALVET Louis-Jean (1999). *Pour une écologie des langues du monde*. Paris: Plon.
- CALVET Louis-Jean (2002). *Le marché aux langues, les effets linguistiques de la mondialisation*. Paris: Plon.
- EASTON David (1965). *A systems analysis of political life*. New York: Wiley.
- FISHMAN Josua (1967). "Bilingualism with and without diglossia; diglossia with and without bilingualism". *Journal of social issues*, XXIII. lib., 2. zk., 29.-38. or.
- LABRIE Normand (1993). *La construction linguistique de la Communauté européenne*. Paris: Champion.
- LAMUELA Xavier (1994). *Estandardització i establiment de les llengües*. Barcelona: Edicions 62.

*Hizkuntza-beharrak,
agerikoa denean,
justifikatzen ditu
hizkuntzaren gizarte-
funtzioak, baita horiei
eustea eta sustatzea.*

Gerta daiteke gutxienez hizkuntza-komunitateko alde batek adieraztea hizkuntza-beharra ez dela asetzen, nahiko bailuke baldintza hobeak izatea bere hizkuntza erabiltzeko, hizkuntza horrek komunikazio-funtzio erabilgarriak bete ditzan, eta ez soilik funtzio sinbolikoak eta identitatekoak. Fase horretan, "hizkuntza-nahia" kontzeptua ekar daiteke gogora.

- LAPONCE Jean (2006). *Loi de Babel et autres régularités des rapports entre langue et politique*. Lévis: Les Presses de l'Université Laval.
Rapport explicatif de la Charte européenne des langues régionales ou minoritaires (1993). Estrasburgo: Europako Kontseilua.
- LEPRÊTRE Marc & BAÑERES Jordi (2002). "La sociolinguistique catalane de la dénomination d'école à l'appellation géographique : une approche idéelle". *Terminogramme*, 103.-104. zk., 105.-127. or.
- SWAAN Abram de (2001a). "La constellation mondiale des langues". *Terminogramme*, 99.-100. zk., 47.-67. or.
- SWAAN Abram. de (1993). "The Evolving European Language System: A Theory of Communication Potential and Language Competition". *Revue internationale de science politique*, 14, 3. lib., 241.-256. or.
- SWAAN Abram de (2001b). *Words of the world: The global language system*. Cambridge: Polity Press.
- VIAUT Alain (argitaratzeke). "Reconstruire la parole en langue minoritaire : réflexion à partir du cas de l'occitan", *hemen: Actes du colloque Corpus et pragmatique* (Université de Fribourg en Brisgau, 2006ko irailak 14-17).

OHARRAK

1. *Mélanges en l'honneur de Christian Coulon* (Bordeaux: Institut d'Études Politiques) argitalpenean azaltzeko duela gutxi bidalitako ekarpen baten berrikuspenetik sortutako artikulua. 2009an argitaratzea da.
2. "Hizkuntzen identitate-funtzioari buruzko ekintzak ere kontuan hartu behar dira egoeren bilakera. Frantzia, adibidez, eremu urriko hizkuntzen defendatzaile batzuek eskari artifiziala sortzen dute, okzitaniera edo bretoaia gizarte-funtziorik gabeko hizkuntza bihurtu direla militantziazko hizkuntza-eskaria eginez konpensatuz" (Calvet 1999: 223).
3. Gaur egun, hauek dira herrialde horiek: Alemania, Armenia, Austria, Zipre, Kroazia, Danimarka, Espainia, Finlandia, Hungaria, Liechtenstein, Luxenburgo, Montenegro, Norvegia, Herbehereak, Txekiar Errepublika, Errumania, Erresuma Batua, Serbia, Eslovakia, Eslovenia, Suedia, Suitza, Ukraina. Herrialde horietatik, 15 Europar Batasuneko kide dira. Beste 10 herrialdek, Europako Kontseiluko kide direnak, sinatu baino ez dute egin; besteak beste, Frantziak, Italiak eta Poloniak.
4. 99_412 DC Erabakia, 1999ko ekainaren 15ekoa.
5. "Hitzaurrean adierazi bezala, gutunaren helburu nagusia kulturala da. Eskualde-hizkuntzak edo eremu urrikoak babestea eta sustatzea da helburua, Europako kultura-ondareko alderdi mehatxatua diren aldetik" (*Azalpen-txostena*: § 10): "Gutunaren helburua eskualde-hizkuntzak edo eremu urrikoak babestea da, eta ez hizkuntza-gutxiengoak" (*Ibidem*: § 11).
6. Gai horri buruz, ikus Katalunian 1990eko eta 2000ko hamarkadan katalanaren aldeko esku-hartze-ko politika erabakigarri baten aldekoek (Aymà, Bastardas, Lamuela) eta lehiazko ekintza liberalagoen aldekoek (Bañeres & Romani, Branchadell) garaturiko jarrerak.
7. "Hizkuntza-aniztasuna Europako kultura-ondarearen elementu kutunetako bat da. Europako kultura-identitatea ezingo litzateke eratu, hizkuntza-uniformetasuna oinarritzat hartuz gero" (*Azalpeneko txostena*, 1993: § 26).
8. "Esperientziak erakutsi eta erakusten digu, European batez ere, gai honetan ez dela egokia aukeraketaz hitz egitea, baizik eta, oro har, mendekotasun-egoeran dagoen hizkuntza-komunitate batekiko indarkeriaz (eta ez beti sinbolikoa), bai eta indarkeria horrek eragiten duen irudikatze-prozesu estigmatizatzaileaz ere. Prozesu horren amaieran, hain zuzen, komunitate jakin horretakoek askoz gehia

go sufritzen dute, beren hizkuntza historikoaren erabilera normalak desagertzen direla ikusten baitute, beraiek hori hautatu gabe. Hala ere, esan beharra dago desagertze hori epe luze edo oso luzean gertatzen dela” (Boyer 2007: 43).

9. “*Cal doncs esbossar un model cibernètic elemental...*” (Beraz, oinarritzko eredu zibernetiko baten zirriborroa egin behar da...) (Aracil 1982: 26).

10. Katalanezko bertsio honetatik: “*D’una banda tindrem les famoses “funcions socials” de la llengua” (= output del sistema lingüístic); i, de l’altra, les aparentment obscures funcions lingüístiques de la societat o estructures i processos socials aferents a la llengua (= input del sistema lingüístic). A més, caldrà distingir dues menes fonamentals de funcions lingüístiques: la consciència lingüística (= language consciousness) i el control lingüístic (= language control). A la llum d’aquest diagrama, ens adonem immediatament que el feedback pot funcionar en els dos sentits. Hi haurà autocorrecció (= negative feedback) quan un dèficit en un ordre de funcions provocarà un esforç compensador en l’altre ordre funcional. I, al contrari, hi haurà amplificació (= positive feedback) quan el dèficit inicial ocasionarà un dèficit de funcions recíproques, el qual al seu torn agreujarà el dèficit inicial, i així successivament. En la primera hipòtesi, el stress (que anomeno conflicte) serà superat i finalment eliminat per canvis adaptatius dins el sistema lingüístic en qüestió. La normalització és l’exemple més típic d’aquesta reacció idealment “normal” (cf. infra). En el segon cas, al contrari, el procés serà molt més complex, llarg i penós, per tal com no arribarà a eliminar el conflicte si no és tot eliminant el sistema lingüístic en qüestió, de tal manera que hi haurà canvi de llengua - és a dir, substitució” (Aracil 1982: 26-27).*

11. “*Esbossar*” aditza erabiltzen du: zirriborratzea (cf. supra, 6. oharra).

12. 13. “*Nahia eta beharra ez dira gauza bera, eta, a priori, hizkuntza orok bete dezake komunikazio-funtzioa, erabiltzaileen komunitate batek erabiltzen duen heinean. “Hizkuntza-nahia”, hemen, kultura-kezka bati erantzuten dio, eta identitate pertsonalarekin zerikusia du. Hau da, afektuen mailan, hitzun baten banakako aukeraketa adierazten du, talde baten berezko kultura-ezaugarriak bereganatzeko, bai tradizioz talde horrekiko lotura duelako, bai nahita talde horrekin identifikatzen delako. Sozializazio-elementu horretan, banakoak, norberaren jardunaren bidez, kultura-markak aurkitu eta dinamizatu nahi ditu; hizkuntza-agerpenetan, elementu horrek zerikusia du hizkuntza-beharrarekin; beraz, kontuan hartzekoa da, komunikazio-instrumentaltasunaren ikuspegitik —are ekonomia-instrumentaltasunaren ikuspegitik— ez ezik, behar soziokulturalaren ikuspegitik. Hainbat jatorritako pertsonak hori lortzeko egiten duten ahalegina koherentziaren adierazlea da” (Viaut, argitaratzeko).*

14. “*Ikusi dugu hizkuntza-normalizazioa dela atzeraelikadura negatiboaren edo konpentsaziozkoaren adibide nabarmena. Hizkuntza-normalizazioa gizartearen hizkuntza-funtzioak berrantolatzea da, hizkuntzaren gizarte-funtzioak aldatzen diren “kanpo”-baldintzetara berregokitzeko”*

15. (Aracil 1982: 31).

16. “*Pribatuan, soziolinguista askok inolako arazorik gabe onartzen dute ez dituztela bereizten hizkuntzaren gizarte-funtzioak eta gizartearen hizkuntza-funtzioak: hitz-joko erraza, baina deszifratu ezina*” (Bañeres & Román 1994: 34).

17. “*Hizkuntza-normalizazioa, nazionalismoari aurre egiteko sorturiko kontzeptua, bere sareetan erori da, arma beldurgarri bihurtu baita. Eta nazionalismoak erabilitako arma guztiak bezala, anbiguo bihurtu da, nahita: alde batetik, batasunaren argudioa erabiltzen du, eta, bestetik, leialen ezauzgarriak bereizteko hesiak altxatzen ditu; nazioarteko ordena aipatzen du, eta, aldi berean, auzokidetzaren onaren kontra doa. Normalizazioaz mintzo da, baina hizkuntza-garbitasuna du amets” (Bañeres & Román 1994: 41). Ildo horretan, ikus hau ere: Leprêtre & Bañeres 2002. Bestalde, ikus: Aymà 1992, Bastardas 1991, eredu normalizatzailearen defentsari buruz; eta, Branchadell 1997, eredu horren erlatibizazio liberalari buruz.*

Hizkuntza baten balio instrumentalaren izaera eta baliabideen, helburuen eta eraginkortasunaren izaera konplexuaren ezagutzan sakondu behar da hizkuntza-ukipenezko egoeretan, azken finean egoera horiek gehiengo baitira mundu osoan.